

BERRIRO TXALAPARTA

Herri Musika Bilduma, aurreko maiatzean abian jarri genuen publikazio saila, aurrera doa. Dultzainari eta albokari ale bana eskeini ondoren, hirugarren liburua argitaratu berri da, oraingoa "Txalaparta eta beste aldaera zaharrak" izenburupean. Berriro txalaparta, eta berriro Juan Mari Beltran.

Lana bera ez da erabat berria, lehenago Eusko Ikaskuntzak argitaratua baitzuen egile beraren "Lan erritmoetatik musikara", non azaltzen zuen lana eta festaren artean dagoen uztarduratik txalaparta eta honen antzeko erritmo jokoaren inguruko teoria: ote-jotzea, sagarra jotzea, karea egitea,... halako lanen inguruan eratu eta erabili dira toberek, kirikoketak, eta azken batean txalaparta berak dituzten oinarri musikalak eta testuingurua. Prozesu hori azaltzen digu osteria Juan Marik, aurreko idazlan hura eguneratuz.

Txalapataren jatorriari buruz funtsez dokumentatu eta arrazoitutako lanaz gainera, tresna honen muinera jotzen du batipat liburu honetan: bere musikaren egiturara alegia. Honela, oinarritzko erritmo-

jokoaren zergatia eta nolakoa azaltzeaz gain, soinu-tresnaren irakaskuntzarako tresna paregabea dakar, beharbada argitalpen honetako berrikuntzarik nabarmenena: txalaparta jotzen ikasteko hastapeneko ariketa saila.

Hernaniko Musika Eskolan urte luzetan Juan Marik berak ikasle talde zabal batekin itxuratu duen txalapatarako metodoa, bakarra ez izanda ere, lehena da jendaurrera ateratzen, ez baita oraindik tresna honentza-

ko material didaktikorik ezagutzen, norberaren abildadea eta ahoz-ahoz jasotakoa besterik (eta ez da gutxi). Hutsune handi hori lehenengoz betetzera dator urratsez-urrats antolatutako ariketa sail hau. Eta ez da noski azkena izango, HM Txokoa eta F3C elkartearen artean proiektu berean, Akitania - Euskadi lankidetzaren bide hartuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Region Aquitainaren dirulaguntzaz material hauek euskarri informatikoan prestatzen ari gara eta.

TXALAPARTA ETA BESTE ALDAERA ZAHARRAK
LA TXALAPARTA, ANTECEDENTES Y VARIANTES
LA TXALAPARTA, ORIGINES ET VARIANTES
THE TXALAPARTA, FORERUNNERS AND VARIANTS



LAN ERRITMOETATIK MUSIKARA
DE LOS RITMOS DE TRABAJO A LA MÚSICA
DES RYTHMES DE TRAVAIL À LA MUSIQUE
FROM WORK RHYTHMS TO MUSIC

Juan Mari Beltran Argiñena

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2004ko abenduaren 18an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

PAKO ESKUDERO ASENTSIO BARRENETXEA

(Oiartzun - Hernani)

Pako Eskudero Haizegain base-
rrian jaio zen, Oiartzungo
Artikutzaldeko auzoan, 1929.
urteko uztailaren 6an. Soinu txikia
hamabi urte zituela hartu zuen,
eta hemeretzi egindakoan, bere
gisa, pianozko soinu handiarekin
hasi. Hasierako hartan bakarrik
ibiltzen bazen ere, Errenderiko
Gabarain, Txikierdiko Manuel eta
Irungo beste bateria jole bat izan-
go zituen lagun urte askoan.
Aurreneko saioak Goizuetako fes-
tetan, karnabaletan eta ezkontza-
tan egin zituen 20 urterekin, gero
soldaduzka egin behar eta, ete-
naldi bat izan bazuen ere. Handik
hiru urtera hasiko zen plazatan
jotzen: Arano, Lekunberri, Anoz,
Azpilikueta, Zugarramurdi, Iruri-
ta,... zituen plaza. Baina Pako
ezagutzen duten gehienek,
seguraski, Oiartzungo Txikierdi
eta Hernaniko Oialumeko bile-
ratan oroituko dute eman eta
eman (makina bat ezkontza ere
egina da). 1974. urtean utzi zion
jendaurrean jotzeari, baina
oraindik ere ederki jotzen du.

Asentsio Barrenetxea berriz,
gazteagoa, Oialumen jaio zen
1949. urteko martxoaren 16,
Hernaniko Martindegi auzoan, eta
hamazazpi urte zituenerako
astintzen zuen "jazzbana" edo
bateria. Eskola hoberik ezin zuen
izan, etxean bertan izaten
baitziren dantzarako bilerak, eta
hala, Oialumera etortzen ziren
Urnietako Arribilaga, Tomas
Falcon "Cascante", Andoaingo

Inazio Legarreta eta haien
bateriarekin ikasi zuen jotzen.
Gero Erviti musika dendara
hasi zen, Manolo Alañarekin
ikastera, baina gauzak nola
diren, azkenean hura ere etxe-
ra ekarri zuen. 18 urterekin hasi
zen bera jotzen, Jose Luis
Ponce, Diego Bikondoa eta
Manolo Amenabar soinu-jole
ezagunekin. Soinu handia eta
bateria izaten zen orduko baile-
rako taldea. Tronpetak eta
saxoak ere sartzen hasi ziren
haiekin, kanpora lehen aldiz
plaza bat egitera Aresora joan
zenean osatutako laukotea
bezala.

Geroztik ez da gelditu:
Lizartzako Lardi baserriko Luis
Mari Barriolarekin, Amaya
boskotearekin, Karraxi
laukotearekin, edo, 1985.az

neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria anto-
latu dugu Auzokalte elkartean
(Herri Musikaren Txokoaren
ondoan) musikariekin egon,
jan, kantatu, jo eta
dantzatzeko. Izen emateko
komeni da lehen bait lehen
deitzea, lekua murrizta baita.
Prezioa: 12 euro.

gero Trakets taldearekin
etengabe, 2001.ean utzi zuen
arte. Gutxi izango dira Gipuzkoa,
Bizkaia eta Nafarroako inguru
hauetan, Asentsiok agindutako
erritmoan noizbait dantza egin ez
dutenak, plazatan, ezkontzatan
edo, seguruenik, Oialumeko bile-
ratan. Plazatik erretiroa hartu
baldin badu ere, pizkorra dago
oraindik, eta nork biziberrituko
dizkigu bada garai haietako bile-
rak Pakok eta biek baino?



XEREMIER DE SON ROCA

MALLORCA - BALEARRAK



-**Tomeu Camps**: Xeremies i flabiol.

- **Pere Joan Martorell**: Flabiol i tamborino, Flabiols, Xeremies, flauta de canya, tamborinos i percuciones.

Xeremiers de Son Roca bikotea Tomeu Camps eta Pere Joan Martorell-ek osatzen dute. Lehena, aita, aitona eta aitonaren aita ere Son Rocako Xeremier izan zituena, eta bigarrena berriz belaunaldi berriko jolea. "Xeremies" Balear Uharteetan jotzen den kornamusa edo xirolarru antzeko tresna da, esku bakarreko "flabiol" flauta "tamborino" batez jotzen duen beste jole batekin batera "colla de xeremiers" osatzen dutelarik, beharbada lurralde haietako herri musika formaziorik eza-gunena. Tomeu eta Pere-k 1990.etik osatu dute elkarrekin "colla" horietako bat, au-

rrenekoaren gurasoengandik jaso dituztelarik, ahozko tradizioz, jotzeko teknika, errepertorioa, tresnak zaintzeko eta festetan ibiltzeko erei buruzko jakintzak. Tomeuren berraitonak jotzen zituen doinukak, bizi-bizirik daude oraindik ere Mallorcan, hark jotzen zituela 100 urte baino gehiago direnean.

Kontzertuan horixe eskeiniko digute, zaharrago haiei ikasitako hainbat doinu, eta haiek egiten zuten eran. Hala egin izan dute urte haue-tan Balearretako hainbat festatan eta Penintsulako beste hainbat tokitan nahiz atzerrian. Makina bat disko ere grabatu dituzte, beste jole batzurekin (Trobada de Xeremiers a Sa Pobla, La Balanguera, Amb coherència amb Al-Mayurqa,...) nahiz beraien kabuz (Trepats eta Ximbomba Atòmica).

OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAK IKASTURTE BERRIA

2004-2005. ikasturte hone-tan bada berrikuntzarik Oiartzungo Herri Musika Eskolan ere. Batetik, aipagarria da orain artean eskei-ni izan diren alboka eta txalapartaz gainera, hiruga-rren soinu-tresna jotzen ikasteko aukera zabaldu duela: Dultzaina edo Gaita. Bestetik, eskola ordutegia ere zabaldu dela. Honela bada, txalaparta irakasle jarraitzen du gure artean Iñigo Monrealek, astelehenetan 21:00etik 23:00era eta asteartetan 17:00etik 22:00era; alboka eta dultzaina irakasten berriz, Haritz Ezeizak ostegunetan 16:30etik 20:00era eta osti-raletan 19:30etik 22:00era dihardu.

Ordutegia zabaltze hau, beharbada aurtengo berrikuntza aipagarrienari zor zaio: ikasle kopurua nabarmen areagotzeari alegia. Txalaparta jotzen 27 ikasle ditugu jada, albokarekin 10, eta dultzainarekin berriz, lehenengoz, 3 ikasle. Badirudi beraz eskola arrakasta izaten ari dela eta espero dezagun oinarria honela sendotzen jarrai dezala.

Eskolan parte hartu edo informazio gehiago nahi izanez gero, zuzenean Herri Musikaren Txokoarekin harremanetan jartzea besterik ez daukazu.

HERRI MUSIKA 3. JARDUNALDIAK

Herri musika eta herri dantza hezkuntza sarean

Joan den azaroaren 27 eta 28an ospatu genituen Oiartzunen herri-musikaren inguruko 3. jardunaldiak, oraingoan HM Txokoa, Euskal Dantzarien Biltzara eta Ikastolen Konfederazioaren lankidetzaz eta Oiartzungo Udalaren babesean eta Hautzaro Ikastola, Auzokalte, Lartaun eta Girizia elkarten laguntzaz, "Herri musika eta herri dantza hezkuntza sarean" gaia lantzeko. Jardunaldiok jada ohikoa bihurtzen ari zaigun egitura izan zuten: larunbat goizean eta arratsean alderdi teorikoak landu ziren Ergoingo auzo elkartearen (Auzokalte) egindako mintegian eta ilunabarrean jaialdi berezia ospatu zen Oiartzungo Udaletxeko areto nagusian aurretik landutakoak ilustratzeko edo. Igandean berriz, goizean dantza irakaskuntzarako tailerrak egin ziren leku berean; eta arratsaldean, jai giroan, Doneztebe plazan ospatutako erromeria batekin itxi ziren jardunaldiak.

Oraindik ez dugu betarik hartu balantze egoki bat egiteko, baina jaso dugun inpresioa nahiko ona dela aurrera genezake. Mintegian, goizeko nahiz arratsaldeko saioetan, hizlari ezberdin mordoska izan genuen: Emilio Xabier Dueñas, Josu Larrinaga eta Jon Fernandezek herri dantzaren irakaskuntzan izan dituzten esperientzien berri eman ziguten, aipagarri delarik bereziki irakasleen prestakuntzan Euskal Herrian ditugun esperientzia bakane-takoak direla alor honetan. Iñaki Eguren eta Mendigaña Gorostiagak berriz musikaren irakaskuntzaren alderdiari heldu zioten bi ikuspegi desberdinetatik: Musika Eskoletan egiten den lanarenetik batak, eta hezkuntza orokorrarenetik besteak, Ikastolen Konfederazioaren baitan garatzen ari den Ostadar proiektuaren baitan, musika arloari eta bereziki hor txertatzen den herri-musikari eman zaion trataera azalduz. Orohar aberat-sa izan zela esan liteke ikuspegi anitz eta ezberdinak bildu zire-lako bertan, eta horren adierazgarri da batez ere arratsaldeko mahai inguruan sortu zen eztabaida seguru asko hiru jardunaldiotan izan dugun emankorrena izan zela. Hori, nolahi ere, Kataluniatik etorritako adituen ekarriari zor zaio neurri handi batean: Joan Serra, M^a Antònia Pujol eta Carme Balagué-k lurralde haietan herri musika eta dantzaren hezkuntzan lanean diharduen "Aula de la música tradicional i popular de Catalunya"-ko esperientzia laburbildu ziguten, eta ondorioren bat ateratzekotan, haiengandik zer ikasia asko daukagula ondoriozta dezakegu. Laburtzea egin zitzaigun lagunarteko giroan haiekin egindako egonaldia, oraindik ere ekarri handia zutela nabarmendu baitzen.

Larunbateko jaialdian, era askotakoak baziren ere, haurren dantza taldeak izan ziren aitzindari: ikastolakoak, dantza

BISITARI KOPURUA

Iraila: bisitari kopurua: 51

Antolatutako taldeak: 2

Urtia: bisitari kopurua: 313


Antolatutako taldeak: 15

Azaroa: bisitari kopurua: 16

Antolatutako taldeak: 353

Bisitari kopurua abendura arte: 7.347

larunbateko jaialdia



taldekoak edo herri mailakoak, Oiartzun, Bilbo eta Gasteizetik bildutako haurren saioarekin ikaragarri gozatu bagenuen, Otsagiko dantzari txikiak ahozabalik utzi gintuzten heuren indar eta trebeziak (eta gaztetasunaz), eta azkenik Kataluniako adiskideek lagundu ziguten berri ere amas hartzen, Baix Ebre aldeko jota eta boleroak hain dotore dantzatzuz. Jaialdi bikaina.

Igandeko tailerretan berriz, jada lagun zaharrak gure artean, Larrinaga aita-semeek eman zioten hasera bezperan azaldutakoak praktikan jartzeari. Ondoren Patxi Perezek ia ohartu gabe mundu guztia dantzan jartzen ondoren, are oharkabeago irakatsi zigun dantza nola irakatsi litekeen. Lekzio ona. Eta txundigarriena berriro Kataluniatik, Joan Serrak, hitzik esan gabe (literalki), inork ezagutzen ez genuen dantza bat erakutsi ziguneko: gorputzaren espresio ahalmenaz hitzegin bazigun larunbatean, gorputzaren bidez espresatu zen oraingoan.

Zer pentsa eman duten jardunaldiak izan dira bada azken batean, hainbat puntu aidean utzi badituzte ere gai zaharrei begiratu berriak egiten lagundu dute eta gozotasun puntu bat ere utzi digute ahoan. Eta hori gutxi bada, Katalunia apur bat barnerago utzi dute gure bihotz-begietan. Izango dugu berriz ere elkartzeko premia.

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oiartzungo
udala